

# ...eta **kitto!**


783 zkia. 2011-XI-18

ASTEKARIA

TOKIKOM



## **ARGAZKIAK** Juan Antonio Palacios **ARTELAN**



## **KOMUNITATEEN**

Tel: 943 70 25 40

ADMINISTRAZIOA

### **KOMUNITATEAK**

- Auzo-herriko zerbitzuak: azterketak eta laguntza
- Elkarretaratasun, garapenak, irakaskuntza...
- Zuzenbiziaren eta erregulazioaren materialak

### **AHOLKULARITZA**

- Finantza
- Legebaitza
- Erreklamazioak
- Asegurua

© 2011 KEIN GROUP. Baita eta bere izenak ere. KEIN GROUP. Baita eta bere izenak ere. KEIN GROUP. Baita eta bere izenak ere.

# Kafe bat, momentu bat. Urkotronik, egunero.



**Bonboi-kafea**



**Kafesnea**



**Frappe**



**Macciatto**



**Ebakia**



**Mocca**



**Amerikarra**



**Hutsa**



**Capuccino**

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkarte

**HELBIDEA:**Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Maider Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Leire Iturbe, E. Belar

etza S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Juan Antonio Palacios

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

8.000 ale

**INPRIMATEGLIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen al-  
dizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusker

**IBILGONA.-** Kalera irteteko emakumeek janzten duten gona. Zentzu figuratuan beti kalean ibiltzen den emakumea esan nahi du. Gaztelarazko 'tracalles'. "Etxeratu ezindako ibilgona gangar bat eginda dago".

**IBILGONA JANTZI/ATARA.-** Ibilgona ateratzen duen emakumea kalean ibiltzeko ohitura edo joera duena izaten da. "Ibillgona jantzi ezker, etxerako ordurik ez".

## ESKUTITZAK

### SEXU JAZARPENARI STOP, EKIN ALTERNATIBARI

Azaroaren 25ean Indarkeria Sexistaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, emakumeok gure bizitzako eremu guztietan pairatzen dugun indarkeria salatzea behartuta gaude beste urte batez.

Emakumeon kontrako indarkeria patriarka-sistemaren ondorioa da, sistema horrek gizon eta emakumeon artean ezartzen dituen botere harremanetan oinarritzen baita. Hau da, gizonezkoei dominazio papera onartzen zaie, emakumei menpekotasunarena egokitzen diguten bitartean.

LAN eremuari dagokionez, patriarka-sistemak sexuaren arabera lan banaketa ezartzen du, horrek emakumeon prekaritatearengatik eta indarkeria sexista iraunarazten duelarik, sexu jazarpena izanik adierazgarrikeria larria.

Emakumeon kontrako indarkeria orori, sexu jazarpenari barne, aurre egin nahi badiogu, ezinbestez prebentzioaz hitz egin behar da, azken finean jendar-tearen ardura ere bada giza honetako gertakizunak berriz ere ez geratzea. Horren kontzientzia izanik,

LAB sindikatuak aspaldi aldarrikatzen du lan munduan parekidetasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak aplikatzea enpresetan. Helburu horri jarraituz, 2008. urtean ezagutaraztera eman genuen sexu jazarpenaren prebentzioarako eta kasuen kudeaketarako protokoloa. Harrezkero, protokolo hau lantokietan ezartzea izan da gure lana.

Hala ere, lan munduan LAB sindikatuak horretan aritzearekin ez da nahikoa, jendarte osoarena eta batez ere, botere politiko eta instituzioen inplikazio zuzena ez badago. Izan ere, egun ez dago borondate politikorik hau aldatzeko. Beharrezkoak diren neurri integralak eta lege horien jarraipena egiteko mekanismorik ezartzen ez den bitartean.

Hori guztia salatuz, LAB sindikatuak azaroaren 25ean goizeko 11etan Bergarako plazan egingo den kontzentrazioan parte hartzeko deia egiten du. Ez lan munduan ez inon, emakumeon aurkako indarkeriari STOP!

Pili Sanz (Eibarko LAB)

asteka

HEMEROTEKA

esaldiak

"Katilukada bat azukrek kortikoide pilula batek baino kalte handiagoa egiten dio gorputzari, baina inor gutxik lagatzen dio horregatik pastelak jateari. Eta 'botikak hartzea txarra da' atsotitzaren inguruan, botikak alferrik hartzea da txarra: komeni denean hartzea, oster, oso ona da"


(Oier Gorosabel, fisioterapeuta eta osteopata)

"Iruña-Veleiako auzian, faltsuak direla esanaz, gure ondare zati bat zakarrontzira joateko bidean da. Euskal filologoen arinkeriak eragindakoa da dena: orain dela bi mila urteko beren euskararen berreraiketa eta ostraketako euskara bat ez zetoze ikustean, nahiago izan dute ostrakak faltsutzat jo"

(Juan Martin Elexpuru, idazlea eta Filologia doktorea)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

# autuan

## HAUTESKUNDIAK

Domekako hauteskunde orokorrak aurtengo bigarrenak izango dira; ohikuari jarraituz, ...eta kitto!-k lantalde berezixa ipiñiko dau martxan, egunian pasatzen dan guztien barri emoteko, domekan bertan internetez (www.etakitto.com webgunian, Facebook-en eta Twitterren, bozA20 berba klabia erabillitta ) eta hurrengo egunian, herriko 63 puntutan banatuko dan ale berezixarekin. Aliak, Eibarko emaitzekin batera, gure herriko ordezkari politikuen inpresia jakosko dattu, botua emoteko orduan eta emaitzak jakiñ ostian be.

## 7.500 EUROKO KALTIAK

Azaroko lehelengo asteburuan egindako eurixak 7.500 euroko kaltiak eragin dittu gurian, Udaleko Zerbitzuetan egin daben baloraziñuaren arabera. Basarri inguruetan gertatu ziran kalterik haundiñak: Gorosta ballian kamiñuetako batian luperixia gertatu zan eta Zezeil basarriko ur-depositua be konpondu bihar izan eben. Azittain eta Txara inguruetan be luperixak egon ziran eta, bestiak beste Otaolan, Txontan, Legarren eta Amañan, basatzak ubidiak oztopatu zittuan. Holakueri aurre egitako, udal brigadakuak ordu extrak egin bihar izan zittuen.

## PRAKTIKA ONAK

Basquetourek eta Euskalit-ek pagauta, turismuaren inguruan biharrian diharduenekin talde barrixa ipiñiko dau martxan Debegesak datorren astian, Praktika Onen Programia dalakua ezartzeko. 25an, 16.30xetan izango da presentaziñua. Informaziño gehixago: 943 820 110 zenbakixan.

## AUZUETAKO BILLERAK


Auzorik auzoko hurrengo billeria martitzenian izango da, 19.30xetan Coliseo antzokixan eta Jardinieta, Matxaria, Pagaegi, Ibargain, Errebal... kalietakuak dagoz deittuta. Auzozaiñak ipiñi dabe pegoretan abisua.

## 150 zabor-poltsa bete zittuen errekan

**60 BOLUNTARIXO BATU ZIRAN AURREKO ASTEBURUAN, DEBEGESATIK BULTZATUTAKO IBAI LAGUN PROGRAMARI** jarraituta errekia garbitzen laguntzeko. Deban, Mendaron eta Elgoibarren jardun eben biharrian hiru ordutan eta eguardixan, amaittu ebenian, errekatik zein baztarretatik batutako hondakiñekin 150 poltsa bete zittuen. Batez be plastikozko botillak eta poltsak jaso zittuen boluntari-xuak. Talderik haundixena, 30 lagunek osatutakua Deban batu zan eta bertako ki-diak Casa Campo inguruan jardun eben biharrian. Elgoi-

barren 16 boluntari-xok jardun eben, tartian hango Gazte Asanbladako gaztiak. Mendaron, ikastola pareko gunia garbittu eben 13 lagunek, tartian Teknikerren diharduen Italia eta Holandako lau bihargin.

Asteburu honetan, domekan gauza bera egingo dabe bigarren txandarako ize-na emon dabenak, baiña oinguan, Eibar, Ermua, Mallabia eta Soraluezkuak jardungo dabe errekia garbitzen. Horrelakuekin errekan pillatzen diran hondakiñen gaiñeko sensibilizaziñua piztu nahi dabe ekimeneko arduradunak.



Elgoibarren etaratako irudixa. / LEIRE ITURBE

## Nagusilan eta Cuevas DV Multimedia sarixetan

**MARTITZENIAN ELGOIBARKO TXARRIDUNA HOTELIAN BANATU ZITTUEN DEBEBARRENEKO DV MULTIMEDIA SARIXAK** eta saridunen artian Eibarko Nagusilaneko ordezkari-xak egon ziran. El Diario Vasco-k emoten dittuan sarixekin udalderri bakotxian bere jardunarengaittik



nabarmendu diran lagun edo alkartiak moduren batian omendu nahi dittue eta, eibartarren kasuan, nagusixeru modu boluntari-xuan laguntziagaittik errekonozimendua egittia erabagi dabe. Ekitaldixan sarixa jaso eben beste omenduak Debabarrena areto foball taldia (Elgoibar), marrea-energixa instalaziñua (Mutriku), Debarte Arte Eskolia (Deba), Kontrargi argazkilaritza alkartia (Soralueze) eta Mendaroko Ospittalla izan ziran. Eta horrez gain, kiroleri eskindutako sarixa be Eibarre-er etorri zan, kirol munduan lortutako markengaittik esparru horretako sarixa Asier Cuevas atleta eibartarrak jaso eban eta.

## Miren Gallastegi, Bardintasunerako ziñegotzixa

**AURREKO BARIXAKUAN PRESENTAU EBEN UDALIAN ANDRA-GIZONEN ARTEKO BARDINTASUNAREN ALDE BIHARRIAN JARDUTEKO** eratu daben konzejalixa barrixa eta bertan

jardungo daben ziñegotzixa, Miren Gallastegi parlamentarixua. Hain zuzen be, parlamentuan betetzen daben karguan arlo honetan esperientzi-xa daka Gallastegik. Andrazkuen alkartietako ordezkari-xak osatzen daben Eibarko Emakumien Mahaixarekin alkarlanian Udalaren Hirugarren Bardintasun Planak jasotakuak martxan ipintzeko biharrian jardungo dabela aurreratu eben presentaziñuan. Komisiño ba-

rixa autonomua izango da eta bertan hartzen dittuen erabagixak aurrera egin deixen zuzenian, Gizartekintzatic pasau barik, gobernu batzordia- ren babesa besterik ez dabe bihar izango.



Bardintasunerako ziñegotzixa Emakumiaren Mahaiko ordezkari-xekin.

## Arrate Hotela ixtekotan




**ARRATE HOTELEKO BIHARGIÑAK EUREN ETORKIZU-NAREKIN KEZKATUTA DAGOZ** eta, ELA sindikatuaren birtartez aditzera emon dabenez, *"hotela ixtekotan dagoz, aspaldidanik salatzen dihardugun moduan, gestiñua eskasa dalako"*. Bihargiñetako askok 15 urte dihardue hotelian eta, euren berbetan, *"sekula ez dogu biharrik faltan euki, baiña bai, ostera, dirua. Hoteleko zuzendaritzak krisixari botatzen detsa kulpia eta, horren eragiñez negoziuak errentabilidaderik ez dakala diñue"*. Horren aurrian, herritar eta agintarixeri *"hotelaren etorkizunaren alde"* egittek eskatzen detse.

## Medicus Mundiren erakusketia udaletxian ikusgai

### ANDRAZKUEN KONTRAKO INDARKERIXIA SALATZEKO EGUNAREN BUELTAN ERAKUSKETIA IPIÑIKO DABE

Gipuzkoako Medicus Mundi-kuak, udaletxeko patixuan, astelehenian (hillaren 21ian) hasi eta abenduaren 2ra bittartian. "Sexu eta Ugalketa eskubidiak dira giza eskubidien artian gizatiarrenak" izenburuari jarraituta prestatutako erakusketia lehelengoz gurian ikusteko aukeria egongo da (astelehenetik barixakura, 09.00etatik 14.00etara)



eta Eibartik beste herri batzuetara eruatzen juango dira, 2012. urtiaren amaiera bittartian iraungo daben kanpaiñan.

Erakusketia Eibarko Emakumien Maixak azaruaren 25erako preparau daben programaren barruan aillegauko jaku eta egunerako antolatu dittuen beste jarduerendako osagarrixa izango da: dattoren barixakuan 13.00etan konzentraziñua deittu dabe udaletxe parian eta 18.00etan, Portalean (3. pisuko ikastarogelan) "Nagore Lafage" bideoforuma egingo da.



## Herrittarrak Diputaziñuarekin zuzenian

**MARTIN GARITANOK DIPUTAZIÑOKO AURREKONTUEN GAIÑEKO AZALPENAK EMON ZITTUAN** astelehenian, Armerixa Eskolan deittuta eguan billera irekira juandakuen aurrian. "Kontuak garbi, Gipuzkoa berri baterantz" kanpaiñaren barruan hainbat herrittan

egin dittue holako billerak, herrittarrak euren kezkek eta galderak eureri zuzenian egittek bide zuzena eskintzeko asmuari jarraituta. Billeran, bestiak beste, San Andres zaharren egoittzan, Eibar-Ermua bittarteko biddia eta eraiki nahi daben ospittala izan ziran gai nagusixak.

# 33.151

...eta kitto!-ko  
**GABONETAKO LOTERIA**

Loteria hartzaileen artean, abenduaren 14an GABON-OTARRA zozketatuko da

#### SALGAI DUZU:

- Udal Euskaltegia
- AEK Euskaltegia
- Isasi okindegia
- Zabaleta okindegia
- Untzaga prentsa
- Urkizu prentsa
- Kultu taberna
- Mujika harategia
- Valenciaga jantxidenda
- Izadi loradenda
- Zubi-Gain kafetegia
- San Andres gozotegia
- Dibutec fotokopiadenda
- Bolintxo okindegia
- Bankoa
- ...eta kitto!

## Helbidea

**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
Orbeako dorreetako  
1. solairua

**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**

☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

- |                           |                                      |
|---------------------------|--------------------------------------|
| 1 Kardiologia             | 10 Barne Medikuntza                  |
| 2 Zirugia                 | 11 Radiologia                        |
| 3 Dermatologia            | 12 Urologia                          |
| 4 Dietetika eta Nutrizioa | 13 Traumatologia                     |
| 5 Anlisi Klinikoak        | 14 Koloproktologia                   |
| 6 Ortodontzia             | 15 Erizaintza                        |
| 7 Otorrinolaringologia    | 16 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa |
| 8 Pediatria               | 17 Foto-depilazio Unitatea           |
| 9 Psikiatria              |                                      |

# ...eta Euskara E Gabon KATAI



SOKADUN  
ESKUMUTURREKOA:  
11,80 euro



KATEA:  
9,45 euro

LAUBURU  
ZINKILIKARIOA:  
15,80 euro

EH ZINKILIKARIOA:  
22,60 euro



NAGUSIENDAKO  
KAMISETAK (S-M-L-XL-XXL):  
25 euro




UMEENDAKO  
KAMISETAK (4 URTETIK 12RA):  
20 euro



BABEROA:  
15 euro

JOKOA:  
9 euro



ABANIKOA:  
15 euro



AMANTALA (LAUKIAK):  
T: 1, 2, 3, 4  
34 euro

ARGAZKI MARKO HIRUKOITZA:  
14 euro

ARGAZKI MARKO ERTAINA:  
14 euro

ARGAZKI MARKO HANDIA:  
16,50 euro



KITTO-AMANTALA:  
10 euro



KITTO-AMANTALA:  
15 euro



Etorri Olentzerori zerrenda egiten laguntzera. Egunero, ...eta kitto! Euskara E  
Datorren ASTELEHENETIK aurrera, 10.00etatik 13.00etara /

## IKUSI, AUKERATU eta ENKAI




# kitto! Elkartearen Metako Katalogoa

*Katalogoak dituen  
irabaziak euskera  
sustatzen erabiliko  
ditugu*



Elkartearen bulegoan (Urkizu, 11)  
16.30etatik 19.30etara  
**ARGUA EGIN!**

DISKA ETA DVDAK



asteko


%70

datua

da Gipuzkuan bere burua gozozaletzat dakenen porzentajia, ogi eta pastelen kontsumuaren gaiñeko estudiuaren arabera. %57k egunian behin baiño gehixagotan jaten dabe, %44'4k pentsatzen dabe ez dabela loditzen eta %41'26k, ostera, kontrakua.

## Barrikuntza Aste arrakastatsua

**BISITARI MORDUA HARTU ZITTUAN ARMAGINTZAREN MUSEUAK AURREKO ASTIAN, LEHENGOZ EGIN DAN** Barrikuntza Astiaren inguruan antolatutako ekitaldixeri esker. Aurreko asteko eguazte naz geroztik ate irekixen jardunaldixak egon ziran martxan museuan eta, horregaittik, normalian baiño jende gehixago ibilli zan. Halanda be, asteburuan egin zittuen bisita gidatuak eta Lantegi Eskolan armagintza ikasten jardundako 3 ikasle-ohik jendaurrian egindako eskopeta biharraren inguruko erakustaldixak batu eben jende gehixen. Museoko arduradunak diñuenaz, *"bertaratutakuen ahotan, bisita oso positibua izan da eta askok harrituta esan deskue ez ebela espero horrelako edukirik topatzia"*. Barrikuntzaren Astiaren barruan Alfa Artera eta Teknikerrera bisitak be egin dittue, bertan egitten daben biharra hainbat ikasle-talderekin batera ikusteko, eta Udaleko bihargiñ eta teknikarixak



Izinkerrekin topaketia egiñ eben. Programaziñuan jasotako azken ekitaldixa Udalak Debege-serekin batera gaurko antolatutako world-kafe edo topaketia da: bertan hainbat ikastetxe eta inguruko industrietako ordekarixak bat egingo dabe, enpresen premiñak zeintzuk diran azaldu eta hórrek asetzeko ikastetxiak eskintzen daben formaziñuaren gaiñeko hausnarketia bultzatu nahixan.


## Gaztañerre tabernarik taberna ospatzen

**ASTELEHENIAN OSPATU ZAN GAZTAÑERRE GURIAN, ASKOK LAGUN EDO FAMELIXAKUEKIN BATERA AFALTZEN** eta beste batzuk, barriz, AEK Euskaltegiak antolatu eben "Ondra janak tabernaz taberna" izeneko ekitaldixarekin bat eginda. Azken urtiotan egindakuaren bidetik, aurtien be kalejiran ibilli ziran, euskaltegi pareko Paloma tabernan hasitta, trikitilarixak lagunduta.

Handik beste pare bat tabernatara juan ziran, afari-merixendia eginda jaixa bapo ospatuta.



Gaztañerre musika giruan ospatu eben AEK euskaltegiak. / LEIRE ITURBE



## Magostoak Urkizu aldian

**URTEROKO MODUAN, AS BURGAS GALIZIAKO ETXEKUAK GURE GAZTAÑERREREN PAREKUAK** diran "magostoak" ospatu zittuen Urkizu aldian, zapatu arratsaldian eta domeka eguardixan. Gaztañeri laguntzeko Ribeiro ardua be saldu eben gaztaiñekin batera. Hor batutako dirua egun bixetan jaixa alaitzen jardun eben Os Galaicos Eibarko Galiziako Etxeko folklore taldekuendako izango da, urtian zihar egitten dittuen jarduerak pagatzen laguntzeko.



Gemma Agirregomezkorta Tere Gantxegirekin ekitaldixan. / LEIRE ITURBE

## Gure Balioak sarixa banatuta


**EGUEN ARRATSALDIAN JASO EBAN GEMMA AGIRREGOMEZKORTA ELGOIBARTARRAK AURTENGO GURE BALIOAK SARIXA,** Ermuko Lobiano jauregixan ospatutako ekitaldixan. Sariduna 12 urte bete zittuanetik erroberadun aulkixan dago, distrofia muskularraren eragiñez eta beste elbarrixen aldeko bihar haundi xa egin dabela pentsatzen dabe epai-

mahaiko kidiak. Gaiñera, hortik aparte, 1985ian Elgoibarko Izpi lantegixaren sorreran lagundu eta 2001ian Miski GKEia sortu eban, Cuzcon (Peru) neska-mutillak eskolaratzen laguntzeko. Iaz, Gure Balioak-en lehelengo ediziñuan sarixa jaso eban M<sup>a</sup> Tere Gantxegik emon zetsan Jose Luis Baroja Colletek sarixandako bereziki sortutako eskulturia.




Espainiako Hauteskundiak egingo dira domekan, azaruaren 20xan. Zapaterok presidentzia lagako dau eta beran lekukua hartuko dabena erabakiko dabe herritarrek botuen bittartez, eurek dake erabakixa hartzeko arduria.

## Hauteskundiekin egoeria aldatuko dala begittantzen jatzu?



**ANA MARIA FERNÁNDEZ**  
64 urte  
jubilaua

Ez dakitt gauzak asko aldatuko diran hauteskundien ostian. Bardin jarraituko dabela uste dot, edo okerrago. Poterian aldaketia egongo da, baiña txarrerako izango dala begittantzen jata. Egoeria ez da aldatuko, izan be, krisixa mundiala da. Tira, ikusiko dogu.



**CARLOS RICHARD**  
52 urte  
langabia

Gatxa ikusten dot egoeria aldatzia. Agintian alderdi barrixa egongo dala uste dot, baiña ego-riak txarrera egingo dabela uste dot. Merkatuak daguazen moduan egonda, gatxa ikusten dot gauzak aldatzia. Oin Gobernuan daguazekin txarto bagaoz, d-atozenekin okerrago.

**JOSE LUIS ETXEBERRIA**  
58 urte  
pensionista

Egoeria ez dala aldatuko begittantzen jata. Espaiñiako egoeria konpontzeko, Europa osokua aldatu biharko zan. Hori konpontzen ez bada, ez dau ezer balixoko hemen egindakuak.



**CARMEN PÓVEDA**  
41 urte  
bihargiña

Begittantzen jata aldaketa politikua egongo dala, poterian daganak nahi dabena egitten jarraituko dau. Gatxa da krisixetik urteztzia. Espero dot, halanda be, gixien dakagunen fabore jardutia, beti garalako gu hartzen diran neurrixak ordaintzen dittugunak.



**EGOITZA NAGUSIA**  
Bilbarrizta 20 - behea, eskuma

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errusketako labea

Egaitzen (ligna poligoniko)

Artikuluak: maki eta oregano erosi zerbitzuak

Korok - Eskala - Urtarrako iraketa

Fuakel Hasi osko ospitaleen hartza 20 litro

Nazio eta Nazioarteko tralajeak

**Mugica Ehorzketa**

TELEFONOA (34 938) **943 201 951**

# ARTOLA

*jatetxea*

## ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

Lomo iberikoaren carpaccio-a  
Etxeko foie-a  
Onddo eta tipulinaren entsalada epela

Legatza labean edo  
Bakailaoa Club Ranero erara

Solomilloa plantxan edo  
Txerri-hankak saltsa bizkaitarrarekin

Degustazio postrea edo  
Limoi sorbetea cavarekin edo  
Jogurt eta anana irabiakia

Etxeko Errioxako kiantza ardoa,  
sagardoa edo beste

Astehenetik barixakura  
EGUNEKO MENUA  
**15 €**

Tokia gordetzeko:  
**943206348**

**25 €** + BEZ

Munduko Paisaiak kanpaiñarekin bat eginda, gure herriko Juan San Martin liburutegixak Txina hobeto ezagutzeko aukeria eskintzen dau egunotan. Holan, aurreko barixakuan, eta Anichi alkartiaren laguntzarekin, liburutegixan bildutako neska-mutillak horoskopoko txinatarra ezagutzeko eta papiroflexia taillarrian animalixak egitteko aukeria izan eben. Gaur arratsaldian beste saio bi izango dira: 17.30xetan, Txinako kaligrafia landuko dabe neska-mutillak eta, handik ordubetera (18.30xetan), Portaleko umien liburutegixan hitzaldixa izango da, oinguan be Anichik emondakua, adopziñuen inguruan. Alkarte honek bere eginbiharra batez be Txinan zentrauta hasi baeban be, azken urtiotan munduko edozein herrittan adoptatutako umieri eta euren gurasueri laguntzen detse, “umia hona etortzerakuan ez dalako dana amaitzen; orduan hasten da dana”, diñoskue. Aukeria aprobetxatuz, mundu osoko adopziñuaren inguruko barri jaso nahi izan dogu.



## Adopziñua, gero eta gatzagua munduan

Asko aldatu dira gauzak adopziñuaren munduan 2007ttik hona. Sasoi hartan tramitiak eta bestelako pausuak askoz ariñago egitten ziran, baiña urte hartan “normatibia aldatu zan, batez be Txinan, eta oiñ askoz be gatzagua da adoptatzia munduan”, diño Cristina Villarrek. Anichi alkarte-kio kidia da bera, “bai adoptau aurretik eta baita gero be adoptatueri eta euren gurasueri laguntzeko sortutako taldekua”. Adoptatua hona etorritakuan hasten dala benetako lana diño berak eta badaka esperientzia horretan, Txinatik etorritako alaba biren ama dalako.

Anichi alkartia 2002xan sortu eben, “ikusitta gurasuak nahastuta egoten zirala holako adopziño prozesu batekin astartakuan eta gauzak erraztu eta bideratzeko asmoz”. Ahalegin nagusixa hasieran Txinako adoptatuen inguruan zentrau arren, azken urtiotan mundu osora zabaldu dabe euren biharra, “batez be Txinan adoptatzia gaur egun sei urte kostatzen dalako, lehen hillabetien kontua izaten zanian. Nire kasuan, hamazortzi hillabetian ekarri genduan lehena eta bederlatzi bihar izan genduan bere arrebatxua gurekin

etortzeko; oiñ, ostera, badago jendia 2006ko abuztutik itxoitten daguana, ahalegiñak eginda be”. Sasoi bateko boom-ari botatzen detsa errua Villarrek: “2007ko maiatzian Txinak neurrixak gogortu egin zittuan eta ordura arteko korapillo hori askatu arte ezingo gara normaltasunera bueltau”.

2006xan eskaera asko eguazten Txinako umiak ekartzeko eta, holan, urte hartan Gipuzkuako Diputaziñuak 115 eskaera jaso zittuan Txinarako (eskae-

riak Diputaziñora egin bihar dira beti) eta 28 adingabeko txinatar iritsi ziran Gipuzkuara. Cristinakin onartzen dau barneko adopziñuaren errelidadia (Txinan bertan egitten diranak) eta horrek be zeregiña izatia prozesuaren moteltze sasoi honetan. “Adoptatzerakuan badago beste puntu bat be: gurasuak jaixo barrixen edo hillabetekuen billa juaten dira. Hiru urtetik gorakuen kasuan aukera gehixago dago, baiña gurasuak beti egitten dabe gaztieten alde”. Orfanatuetan-eta

ez dirala hainbeste espediente tramitau diño Villarrek, “umiak egonda be. Sanuak dagozen eziñ esan, baiña umiak badagoz”. Holako orfanatuetatik “regulatutako espediente medikuak bialdu bihar izaten dira, “baiña askok igual ez dake ahalmenik hórrek espedientiok Txinako Adopziño Zentrora bialtzeko”. Azpimarratzen dabenez, “prozesuetan oso serixo jokatu izan dabe beti txinatarrak: gogorraguak edo bigunaguak, pauso batzuk emon bihar dira, markautta dagoz eta horrek errespeta-tzen dira”. Beste herri batzuetan 27.000 eurotik gora ordaintzera heldu dirala be esan desku: “Halakorik ezin da onartu. Txinan donatibo bat dago bakarrik, 200-300 eurokua”. Aitortzen desku, halanda be, prozesua zenbat luzatzen dan eta tartian sartzen diran araberakua izaten dala askotan kopuru hori: “Baiña ezin dogu onartu zenbat diru kostau jatzu? eta halakuak entzutia: dirua ezin da adopziño prozesu baten sartu, ez da zuzena”.

### Gaur egungo egoeria

Azken aldixan Etiopiatik etorri dira hainbat ume eta bertako prozesua pare bat urtekua izaten da. “Errusian emoten dau



Cristina Villarrek  
adopziñuaren  
inguruko hitzaldixa  
emongo dau gaur  
arratsaldian.  
/ SILBIA HERNANDEZ



Aurreko barixakuan papiroflexia taillarian jarduteko aukeria izan eben. / SILBIA HERNANDEZ

oin zeozer errazteko aldekuak dirala, Nepalen askotan ez da jakitten umia nondik datorren segurtasunez, Vietnamen be gero eta itxiago dago (sasoi bation Estatu Batuak hartzaille izan ziran) eta gaiñera argi-illunak dagoz... Marruekokosekua doia gora, baiña ez da adopziñua, umia hartzia baiño". Umiak jasotzeko, bestalde, Txinaren kasuan biaje batekin nahikua da: "Hamabost eguneko egonaldixarekin nahikua da; Kolonbian egonaldi bat, baiña hillabete batekua; Errusiaren kasuan birritan jua bihar dozu bertara; Marruekokosen hainbat bidar jua bihar da, Islamera egin biharreko konbersiñua be badago tartian...".


## Txinaren gaiñeko 50 bat liburu

Juan San Martin liburutegixan liburu kopuru horren bueltan dagoz Txina Asiako erraldoia protagonista dakenak. Badagoz ipuiñak diranak, txinatar kaligrafiarekin, eta baitta (gazteleraz eta euskeraz) literatura, politikia, medizinia edo sexualidadia lantzen dabenak be. Aittatutakuekin batera, "Aprende chino con Xiao Yue" txinera ikasteko metodoa dago eta baitta herri horretako DVDak be. Naziñoarteko periodikuen artian, bat Txinakua da.



Jaiotterixetan egitten detsen segimenduari begira, "Errusian 18 urtiak egiñ arte, urtero egin biharrekua da. Txinan, bestalde, sei hillabetera egitten da lehelengua eta bigarrena urtebetera". Segimenduari garrantzixa emon bihar jakola diño Cristinak, "Diputaziñuak halakorik ez badau eskatzen be, sorterrixak ez dabelako nahi kontaktua galtzerik". Horrez gain, gurasuen jarrerak bere ondoriñuak izan leikez gurasuak izatia nahi dabenen hurrengo kasuetan, bide horretako errazte edo zailtze prozesuan.

Umiak kanpotik badatoz be, ez dira kanpotar moduan tratatu bihar. "Askotan borondate onez egitten da, baiña printzipalena integraziñua da eta hamengua balitz moduan tratatzia. Txinan jaixotakua bada be, hamengua da: ez bihartu Txina buruan izatia. Frantzian egindako jardunaldi batzuetan topo egin genduan Kolonbiako neska batekin haren famelixak bere hobebiharrez Hegoamerikako maletñak eta musika tipikua erosten zetsena. Nahastu besterik ez zebeñ egiñ, berak bestiak bezelakua izatia gura ebanian. Integraziño sañua da printzipalena".




## berriro ere EIBARREN 'ZAZPIKOLOROA' ikuskitzun berria

Irailaren 30erako kuota eguneratuta duten **BAZKIDEENTZAKO AURRE-SALMENTA azaroaren 14tik 25era** (6'50 euro) Salmenta ordutegia ...eta kittol-n: 08.30-14.30 eta 16.00-19.30 (astelehenetik barixakura) / BAZKIDE BAKOITZAK: 3 SARRERA GEHIENEZ **GAINONTZEKOAK: 26tik aurrera** (7'00 euro) e&m argazkidenda, El Tío Palancas eta Gozoki-n

Abenduaren 10ean 16.30 / 19.00 **4 saio aukeran** Abenduaren 11n 16.00 / 18.30

TEEN-  
AJEA



Urte eta erdi darama Unai Gallastegi eibartarrak Gainesvillen (Floridan). Astrofisika ikaslea da eta horretarako hori baino leku hoberik ez dagoela dio. Zorte handia daukala. Leioan, Tenerifen eta Irlandan ikasi eta gero, EEBB-n izarretara begira dago orain Unai. Eibar, hala ere, bihotzean darama.

UNAI GALLASTEGI, Astrofisika ikaslea:  
“Txikitan ez nuen teleskopioekin jolasten”

- Nola amaitzen du eibartar batek Floridan? Zer da bertan egiten duzuna?

Orain dela urte batzuk ez nuke pentsatuko hemen egongo nintzenik, etxetik hain urruti eta Estatu Batuetan, demaseko zortea dela pentsatzen dut. Ameriketara etortzea nahi nuen astrofisikarekin jarraitzeko, eta Espainiako Instituto de Astrofisica de Canarias (IAC) eta Floridako Unibertsitateak duten kolaboraziotik sortutako beka bat lortu nuen hemen Astrofisikan Doktoretza egiteko.

- Astrofisika ikasten diharduzu. Denbora asko izarretara begira txikia zinenean, ala?

Ez naiz astronomo klasikoeetakoa, ez nuen txikitan teleskopioekin "jolasten" eta gauero izarretara begira jartzen. Beti gustau izan zaizkit fisika eta matematikak, eta unibertsuari buruzko gauzak beti iruditu zaizkit intersgarriak, baina fisikako hirugarren urtearen amaieran erabaki nuen hori zela egin nahi nuena eta momentu horretan erabaki nuen Tenerifera joatea.

- Nolako da Floridan duzun bizitza?

Bizi naizen hiriko bizitza nahiko lasaia da, eta eguraldia ona eta oso eguzkitsua da. Honek ez dauka zer ikusirik Europarekin. Hemen dana demasa da, ez dago gauza txikirik. Unibertsitateko kanpua Eibar bezain handia da, 50.000 ikasle inguru ditu eta autobusez joan behar duzu leku batetik bestera. Lantokiaren alboan Foball Amerikarreko estadiuma dago 90.000 ikusle ingururantzako tokiarekin. Foball unibertsitarioa da, unibertsitateko foball taldearentzat! Pelikuletan ikusten den bezalakoa da hau, bere gauza on eta txarrek.

- Etxetik milaka kilometrotara sentitzen da herrimina?

Duda barik. Beti izan naiz - eta naiz- oso eibarzalea, baina urte asko daramatzat etxetik kanpo eta ez dut nire burua han ikusten. Hala ere, hain urrun egonda gauza gehiago dakizkit Eibar, Euskadi, eta Espainiaz orokorrean han bizi nintzenean baino. Ez hori bakarrik: hemengo nire etxeko egongelan Eibarko eta Euskal Herriko ikurrina bana dauzkat paretean eskegita!

Elkarrizketa osoa: [www.etakitto.com](http://www.etakitto.com)

**publi resa**

- Pin-ak  
- Metxeroak  
- Kamisetak  
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta  
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97      Publi.resa@euskalnet.net

**San Andres  
Gozotegia**

● tartak  
● enkarguak  
etxera

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

Udaletxeko arkupeetan usain goxoa zegoen domeka eguerdian. Gosetuta pasatzen zen jendeak begi zorrotzekin begiratzen zituen kazolak. Bertan, eibartar gaztetxoak bakailaoa prestatzen ziharduten, kazola etengabe mugituz saltsa loditu zedin. Gogoia eta maitasuna, behintzat, ipini zioten jakiari.

## Aldatzekoa da bakailao onena

**M**aila oso ona egon da lehiaketan". Horrela azaltzen da Bakillauaren Kofradixako Juan Mari Murua lehiaketaren gainean berba egiterakoan. Irabazleek "25 puntutik 18" lortu zituzten Muruak dioenez. "Benetan oso puntuaketa altua da horrelako lehiaketetan". Argiñano, Arzak eta halako sukaldariek; beraz, argi ibili beharko dute Eibarko gaztetxoaren artean duten kompetentziarekin.

12 eta 16 urte bitarteko 29 bikotek hartu zuten parte Eskolarteko VIII. Bakailao Lehiaketan. Herriko eskola guztiek izan zituzten ordezkariak, baina bakarrak eraman zituzten sariak: Aldatzek. 12 eta 14 urte arte-



Probidentzia ikastetxeko ordezkariak lortu zituen sari gehienak lehiaketan. / EKHI BELAR

an Ainhoa Sarasua eta Ariana Jogak osatutako bikotea izan zen irabazlea, eta 14 eta 16 urte bitartekoetan Teresa Elorzak eta Oier Aginagak irabazi zuten. Bikote biak Aldatzeko ikastetxekoak ziren, beraz, talde onenaren saria ere bertara joan zen. Hala ere, Muruak aipatu bezala, maila handia izan zen lehiaketan eta denek eraman zuten domina etxera.

### Eguraldia lagun

Lehiaketa hasi baino lehen hainbat aholku jaso zituzten gazteek bakailaoaren prestatetaren gainean, "baina 29 bikotetatik 20 etorri ziren hasierako hitzaldi horretara eta gero igartzen da". Hala ere, guraso eta lagunen aholkuak etengabe jaso zituzten gazteek su artean zebiltzan bitartean.

Eguzkia eta tenperatura epela lagun, su-

kaldari gazteek udaletxeko arkupeak bete zituzten publikoa izan zuten euren lana egiten zuten bitartean. Hesiaren kanpoaldean zeudenek aholkuak, animoak eta argazkiak egiten zituzten bitartean, parte-hartzaileek kazolak mimo handiz mugitu eta bakailaoa ea nola zegoen probatzen zuten.

Epailleentzat ez zen erraza izan garailea zein izango zen erabakitzea. Jose Neyra sukaldaria, Jose María Salvador La Bacaladera enpresako gerentea eta Juan Mari Gomez Bakillauaren Kodradixako presidentearen esku egon zen erabakia, eta tentu handiz probatu zituzten 29 bikoteek prestatutako jakiak.

Euren artean eztabaidatu eta sukaldari gazteen maila altua azpimarratu eta gero, Aldatzeko zaporea izan zen epaileei gehien gustatu zitzaiena.

# GREMIOEN GIDA

NEW 2008

## ANTENAK

**BALATZ** S.L.  
Instalakuntzak eta konponketak  
antena - telebista  
Bidebarrieta, 37 Tfnua. 943 20 05 08  
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain z/g  
Tfnua. 943 12 73 50  
Faxa. 943 20 73 60  
www.trinmer.com  
**trinmer**  
TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

## AROTZAK

**ulmar**  
S.L.  
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar  
Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnook: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50  
ERAKUSKETA  
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## GARBIKETAK

**Limpieza  
Multiservicio  
Eibar**  
Superficie  
mota guztietako  
garbiketa eta  
mantenimendu zerbitzua  
Tfnua. 943 254 615  
Mobila 688 609 171 Barrena, 21 - 1. F

**TREJO**  
GARBIKETAK S.L.  
Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Soraluze  
Garbiketa eta  
mantenimendua

## ARKITEKTOAK

**LEOBARAGA & OTERMIN ARKITEKTOAK**  
Paseo de la Libertad 10 - 48100 BILBAO  
urbanismo, proiektuak, diseinua, egiturak, instalazioak,  
ordenaketa, abstrakzioa eta 3D irudiak / simulazioak

## ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD  
**CUADRA EC**  
SERVICIOS DE ELECTRICIDAD  
TELÉFONOS Y TELECOMUNICACIONES  
INDUSTRIA MANTENIMIENTO  
PROYECTOS  
OBRAS PROGRAMAS

## AROTZAK

**IÑAKI**  
Egurrezko mota Ateak - Tarimak  
guztietako lanak Altzariak  
Milaflores 10 Tfnua. 943 20 35 55

**GURIA**  
ELEKTRIZITATEA  
\* Muntaiak eta  
proiektu elektrikoak  
Matsaria 2 - 7. pabilioia  
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27  
www.electricidadguria.com

Aroztegia □ Ebanisteria  
□ Obra aroztegia  
Egiturak, barruko eta kanpoko atek,  
arimairu enpatratuak, tarimak, parketak, rodapiesak,  
eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak  
Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

# Informazio gehiagorako



943 20 67 76



## IGELTSEROAK

IGELTSERITZA



**CAMILO ALVAREZ** OROKORREAN

– Barne erreformak  
(sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)

– Gremioen koordinaketa

**Jardiñeta, 25** - behea  
Etoko tfnoa. 943-207678  
Mobila. 620 060 104



**IRAIZABAL**

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK  
IGELTSERITZA ETA  
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitaín Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
[www.irazabal.net](http://www.irazabal.net)

## ITURGINTZA



**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANSGROHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18  
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

## KRISTALAK



**ACHA Kristaldegia**

ERREKATXU, 3<sup>an</sup>  
**KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK**  
[c.acha@euskalnet.net](mailto:c.acha@euskalnet.net)  
eta faxa: 943 20 39 03

## PINTURAK



**AIXA**

Pintura orokorra  
Margotutako paperak  
Zoruen kolokazioa  
PVC zoruak  
Maketak  
Alfonbrak  
Kortinak  
Etxerakoak  
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.  
943 20 05 94  
T. Etxebarria, 8 - behea



**PINTURAS ARRATE, S.L.**

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A  
[parrate@terra.es](mailto:parrate@terra.es)  
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89



**Pinturas Elias e Hijo, S.L.**

**pintura eta estaldura mota guztiak**

BARAKALDO, 7  
Telefonoa: 943 12 05 02  
Mobilak: 618 27 28 91 / 639 76 27 97



**MALVAR PINTURAS**

Sostoa, 16 ac behea  
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396

**Pintura**

**Goi mailako dekorazioa**



Pago Kalea, 35 DURANGO  
Tel. / Faxa: 94 620 03 01  
Mobilak: 607 41 71 81  
666 74 30 98

**VICTOR GONZALEZ FRAIZ**  
PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko  
dekorazioa eta pintura,  
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,  
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-  
696-565394 / 943-030540  
[victor-fraiz@hotmail.com](mailto:victor-fraiz@hotmail.com)

## SARRILAGINTZA



**GILTZAK**

Era guztietako sarrailen salmenta eta mantenua  
Segurtasun-instalakuntzak  
Sarrailen egokipenak  
Segurtasun kutxak  
Era guztietao giltzen kopiak  
Trabatutako atsek eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391  
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 [www.giltzak.com](http://www.giltzak.com)  
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

**Asier Serranoren****kolaborazioa****Justizia**


*Denok maite genuen amets gorritik iratzartzen gintuen oilarra, baina ez zen gutarikoa, horregatik erre genuen lapikoan. Denok maite genituen baserriko larrean bazkatzen ziren ardiak, baina ez ziren gutarikoak, horregatik amilarazi genituen haitzartean. Denok maite genuen erbiak oso urrunera usaintzen zituen ehiza txakurra, baina ez zen gutarikoa, horregatik tirokatu genuen basoan. Denok maite genituen merkatura eramaten gintuzten bi astoak, baina ez ziren gutarikoak, horregatik moztu genizkien hankak ukuiluan. Denok maite genuen notizia arrotzak ekartzen zizkigun uso mezularia, baina ez zen gutarikoa, horregatik josi genizkion hegoak atarian. Denok maite genituen uzta jasotzen laguntzen ziguten morroiak, baina ez ziren gutarikoak, horregatik lurperatu genituen baratzean. Denok maite genuen hazienda kiskalia bisitatzeraz etorri zitzaigun justizia, baina ez zen gutarikoa, eta horregatik abandonatu gintuen deserrian.*

**musika****Ruper Ordorika**  
*Hodeien azpian*

Ruper Ordorika kantua sorzen nekazina bada, kantuen soinuari xehetasun handiarekin erreparatzen dio Ruperrek, disko bakoitzari dagokion usain eta bereizgarria bilatu nahian. Beti lortzen du gu harritzea eta aurrera egitea. Kantuen bidez, irudi literarioari helduta, gizakiaren barruko ametsak, fantasmak eta barne-hizketak.

**Lain**  
*Leihoak*


Villabonako talde gaztearen bigarren lana. Pop kitzikagarrria, bizia eta iradokitzailea. Kantariak neskak izateak ematen dion berezitasunak, eta talde gisa duten ezaugarri naturalak, aparteko lekua eskaini die Euskal Herriko publikoaren artean.

**Jasone Mitxelorena**  
*Auzolanaren kultura*

Auzolana antzinako garaietatik iritsi zaigun lan-sistema da, komunitate bateko kideen arteko elkarlanean oinarrituta dagoena. Lan-sistema baino gehiago, herriak ekiteko, antolatze eta bere burua eratzeko duen modua da. Liburu honek gure herrian auzolana zer izan den eta zer den azaldu nahi du.

**Irene Nemirovsky**  
*Suite frantsesa*

Ohiz kanpoko nobela da Frantziar Suitea, ohiz kanpoko egoeran idatzia. Maisuki erakusten du XX. mende erdi aldeko Europaren tragedia. Nobelak alberdi autobiografiko ukazina du, eta alemaniarrek Parisen sartzeko bezperetan hasten da, kezka giroa betean.

**literatura**



*“Eibartik deitzen didazue? Zer gertatzen da herri hartan ba?”. Poza somatzen da telefonoaren beste aldean eta ez da gutxiagorako, 2011 Kultur-Kazetaritzako Sari Nazionala jaso berri baitu Ana Borderasek. 4 urterekin Gasteizera joan zen bizitzera eta handik Madrilera. Eibar, hala ere, oso gogoan dauka.*

**ANA BORDERAS, kazetaria:**

## “Kulturari inoiz ez zaio behar duen garrantzia eman hedabideetan”



Ana Borderasek garrantzi berezia eskaintzen dio kulturari bere saioan.

### - Zorionak, alde zurretik.

Eskerrik asko. Baina, tira, zer da jakin nahi duzuen?

- **Sariaren gainean galdetu nahi genizuke eta aitzakiarekin Eibarrekin duzun harremanari buruz.**

Amaiteratik hasiko gara, hori baita hasiera. Gogoratzen ditut Eibarren emandako urteak. Estaziño kalean bizi ginen. ‘El Ondarrés’ altzari denda oroitzen dut, Estaziño kalean zegoena. Guk kalean jolasten genuen, espaloian.

- **Aitari lan egiteko tokia Eibarren tokatu zitzaizolako jaio zinen hemen?**

Bai. Aitak dio horiek izan zirela bere bizitzako momenturik onenak. Ezkondu baino lehen, logelak alokatzen dituen etxe batean bizi zen bera, eta horietako batean, Estaziño kalean, alabarekin, suinarekin eta ilobarekin bizi zen emakume bat zegoen, Carmen Aranberri. Nire bizitzan oso emakume garrantzitsua izan zen Carmen. Berarekin ikasi nituen euskaraz dakizkidan 4-5 berbak, umeei esaten zaizkion horietakoak, sehaska-kantak. Emakume langilea zen, elegantzia eta itxura izugarria.

- **Gasteizera joan zineten gero, ezta?**

Aitak Arana klinikan plaza

lortu zuen, baina Eibarren eza-gututako jendeak gure bihotzean egoten jarraitu zuen. Eibarrera joaten ginen sarritan, Carmen Aranberri gugana etortzen baitzen bisitan eta berarekin joaten nintzen Eibarrera. Etxegaratzen gora eta behera nola ibiltzen ginen gogoratzen dut orain, demaseko elurraekin autobusean...

- **Gasteiz eta gero, Madril.**

18 urterekin joan nintzen karrera ikastera. Lehen praktikak irratian egin nituen eta hor dihardut oraindik, nahiz eta ibi-

**Zapatuetan 07.30etatik 08.00etara egiten dugun ‘La hora extra’ saioan asteburutik aurrera egingo diren kultura ekintzak jasotzen ditugu, agenda formatuan**

li naizen beste formatu batzuetan ere. Radio Vitorian egin nituen praktikak 1983an, orduan Arabako Aurrezki Kutxarena zen irratia, baina gero Eusko Jaurlaritzak hartu zuen. 1985ean lana aurkitu nuen Madrilan eta hemengo irratia autonomikoan 7 urtez egin nuen lan. Cadena Ser-en hasi nintzen ondoren eta datorren otsailan 20 urte beteko ditut bertan.

- **‘La hora extra’ programan zabilta ordutik?**

Albistegietan ibili naiz beti, kultura sailean, eta hiru lagun dihardugu horretan lanean. Kulturaren gaurkotasan arduratzen gara maila nazionalan. Madrilan antzerki estreinaldi bat badago eta gero estatuan zehar gira egingo badu, guk horren berri ematen dugu, adibidez. Egunero kultura arloko berriak jorrotzen ditugu eta albistegietako pertsoneri saldu egiten dizkiegu, modu batean esatearren.

- **Erosten dituzte?**

Kostatzen zaigu. Hori lanaren zati bat da. Bestetik, zapatuetan 07.30etatik 08.00etara egiten dugun ‘La hora extra’ saioa zuzentzen dut. Asteburutik aurrera egingo diren kultura ekintzak jasotzen ditugu, agenda bezala. Premisa bat daukagu: ez da politikorik sartzen. Bestela ere, badaukate euren tokia.

- **Albistegietan kultura sal-**

**tzea aipatu duzu lehen. Behar duen garrantzia ematen zaio kulturari hedabideetan?**

Inoiz ere ez. Ez lehen, ez orain; hori ez da aldatu.

- **Imajina zenezakeen Radio Vitorian hasi zinenen Sari Nazionala jasoko zenuenik?**

Ez, eta are gutxiago nola izan den ikusita. Izan ere, entzule baten proposamenaren ondorioz irten naiz irabazle.

- **Nola?**

Saria Kultura Ministeritzak ematen du, baina sariak epaimahaia dauka, 12-14 lagunek osatutakoa. Horiatariko batek nire izena ipini zuen mahai gainean, “*hau da nire kandidatua*”, eta horren defentsa sutua egin zuen. Beste irratia batean egiten du lan hark, Onda Ceron, eta irratia-kate komertzialen ordezkaria zen epaimahaian. Berak zapatuero entzuten du ‘La hora extra’ bere emazte eta alaba txikiari gosaria egiten dien bitartean. Irailaren amaieran, oporretan nengoela, irratira deitu zuen: “*Kaixo, ez nauzu ezagutzen. Nire izena Manuel Marlasca da, epahimaiko kidea naiz eta Ana Borderas proposatuko dut sarirako*”. Nik ez nuen ezagutzen eta berak ere ez zuen nire telefonoa.

Elkarrizketa osoa: [www.etakitto.com](http://www.etakitto.com)

## Eibartarrak Euskadiko hiru txirlo txapelaren bila

**ASOLA-BERRIKO ORDEZKARIZ BETETA DAUDE EUSKADIKO XXII. HIRU-TXIRLO TXAPELKETAKO** saikapen orokorraren goiko postuak Bolibarko Iruzubietan jokaturako jardunaldiaren ondoren. Bertako Beñat Albizurekin batera, Eibarko bolatokiko beste bost lagun izan ziren sei txirloak botatzeko gauza: Arkaitz Rodríguez, Aitor Etxaniz, Mikel Ur-

kia, Olaitz Rodríguez eta Julen Goenaga. Bihar Elgetan jokatuko den hurrengo jardunaldiaren bezperan, Ibai Díez, Etxaniz eta Arkaitz Rodríguez dira saikapen orokorreko lehenak (hirurak Asola-Berrikoak) eta puntu bakarrera jarraitzen dizkiete Bittor Astigarraga eibartarrak eta Iruzubietako Antolin Arizmendiarretak eta Juan Txurrukak.



Modalitateko gazte jendea azken denboraldiko irudi batean.


## Lau txango aurten ere Deporreko eski batzordearen denboraldian

**KLUB DEPORTIBOKO ESKI BATZORDEAK LAU IRTEERA ANTOLATUKO DITU HEMENDIK GUTXIRA HASIKO DEN** denboraldirako: urtarrilaren 14/15 eta 28/29ko asteburuetan, otsailaren 11/12koan eta martxoaren 3/4koan. Bestalde, federatu txartelak tramitatzen dihardute eta baita Somporteko denboraldirako bonoak jasotzeko izenak hartzen. Bestelako informazioa jaso nahi duenak Deportiboko lokaletara jo dezake martitzen eta eguenetan, 19.30etatik 20.30etara.

## San Andres tiro olimpiko lehiaketa

**DINBI-DANBA ELKARTEAK ANTOLATUTA, SAN ANDRES TXAPELKETAREN** edizio berria jokatuko da datorren asteko za-

patuan, hilaren 26an, ohikoa denez Unibertsitate Laboraleko tiro galerian. Lehiaketa goizeko 11.00etan hasiko da eta 12.30ak bueltan amaituko eta txapelketa senior, junior eta infantil mailatan banatuko da.




## Kalamuakoak Uematsu anaiekin

**KALAMUA JUDO KLUBEKO HAINBAT ORDEZKARI DURANGOKO EZKURDI FRONTOIAN** izan ziren asteburuan Uematsu anaiek emandako judo ikastaroan. Portugaleteko anaiek Europako eta munduko txapelak izandakoak dira eta Kiyoshi Londreseko jokoetan parte hartzekotan da. Jardunaldi bietan 246 kirolari izan dira teknika berriak ikasten lehiaketara begira zuzendutako ikastaroan. Bihar jiu-jitsu ikastaroa emango dute Javier García munduko azpitxapelak eta Maria Merino Europako txapelak Kalamua-ko instalazioetan.

## Gimnastak podiumean Euskalgym-ean

**JUNIOR MAILAKOAK 2. POSTUA ESKURATU ZUEN ETA 1. MAILAKOAK HIRUGARREN** amaitu zuen Durangoko Euskalgym txapelketan. Emaitza bikain horiekin jarraitzeko aukera izango dute Ipurua Gimnasia Erritmikakoek bihar ere, Zaragozako Utebo herrian jokatuko den txapelketan hartuko dute parte-eta. Horrek guztiak asko lagunduko die hurrengo asteburuan Ipuruan jokatuko den San Andres lehiaketa handia prestatzen.



## Waterpoloko lehen taldea erraz nagusitu zen Donostian

**EUSKAL HERRIKO 1. MAILARA IGOTZEKO LIGAN, URBAT-URKOTRONIK 3-17 NAGUSITU** zitaion Easori Donostiako Paco Yoldi igerilekuan. Iaz ligan bigarren amaitu zuen talde berbera dute eibartarrek -hori bai, Ander Azpiatzuren (Erasmus-etik bueltan), Jokin Romane-

Ili eta Alain Moyaren itzulerarekin- eta aurten gogotik borrokatuko dute asmoak betetzeko. Asteburu honetan, bestalde, kadete mailako taldeak Waterpolo Navarra estatuko talde indartsuenetakoa hartuko du Orbea kiroldegian (bihar, 15.00etan hasita).



## El Corte Inglés ralliesprint-aren lehenengo edizioa jokatuko da bihar

### ARRATEKO IGOERAREN ORDEZ, ESCUDERIA EIBAR-KOEK I. RALLYSPRINT-A ANTOLATU DUTE

aurten. Datak ere aldaketa izan du eta Euskai Rallysprint eta Gipuzkoako Rallyak txapelketarako puntuagarria den proba bihar jokatuko da. Arraten egingo den ezkontza batek, gainera, antolatzaileak aldaketa batzuk egitera behartu dituzte: horrela,



Arrateko errepideak hartuko du biharkoa.

lehenengo tramo eta bigarrenaren artean igoko dira ospakizunera-ko autobusak Arratera eta horrek lasterketaren ordu erdiko geldialdia ekarriko du (tarte horretan, dena dela, ez da errepidea zabalduko).

Lasterketak 10'4 km. izango ditu (BI-3950eko 54 km.-tik GI-3950eko 1'60 km.-ra) eta dagoeneko 59 pilotok eman dute izena, tartean Angela Vilariño eta Txus Jaio moduko maila handikoek. Escudería Eibarrek hamabi ordezkari izango ditu: Iban Tarsicio, Arkaitz Uranga, Iñaki Narbaiza, Jorge Rodríguez, Joseba García, Aitor Irazabal, Jon Zalloetxebarria, Omer Artaloitia, Eneko Goiriena, Gotzon Urrutia, Alex Velasco eta Jagoba Martínez.

Matsariako poligonoan lehenengo egiaztapenak egin ondoren, 09.30etan Untzagan egingo dira arlo teknikoarenak. Parke itxikit 13.00ean irtengo dute autoek, Arateko errepidea ordu berean moztuko da eta lehenengo parte-hartzaileak 13.50etan irtengo du.

### Karting txapelketaren amaiera

Domekan Euskadiko karting txapelketako azken jardunaldia jokatuko da Gueñesen, 10.00etan. Han izango da Julia Agirre, sailkapeneko hirugarrena, postu bat aurreratzeko asmoz.

## Egaña-Bengoetxea mailari eustera

### BIHAR 17.00-ETATIK AURRERA IPURUA KIROLDEGIKO FRONTOIAN

Egaña-Bengoetxea Eibarko Klub Deportiboko bikotea mailari eusten ahaleginduko da eta, 2. mailara ez jaisteko neurketan, Tolosako Mujika-Zinkunegi izango dituzte aurkari: neurketak garrantzi berezia du, beraz, asko baitago jokoan. Aurretik lagunarteko beste partidu bat jokatuko da Deporrek kadete eta jubenilen artean.

## Eibar Eskubaloiak alebiren entrenamenduak hasiko ditu

### SORTU BERRI DEN TALDEAK LEHEN HEZKUNTZAKO 5. ETA

6. MAILAKO neska-mutilak gonbidatu ditu domekan, 09.00etatik 11.00etara Ipurua kiroldegian egingo duten entrenamenduan parte hartzera. Jardunaldi hori hemendik aurrera hamabostean behin egin beharreko lehenengo izango da eta alebin mailako neska-mutil horiek parte hartzen duten Multikirola programaren betegarri. Entrenamendu saio horietatik mutilen talde bi eta nesken beste bat


lortzea da asmoa (dei berezia egiten zaie neskei, ikusita kirola egiteko duten zailtasunak).



## 102 eibartarrek amaitu zuten Behobia-Donostia

### ASIER CUEVAS IZAN ZEN GURE ORDEZKARI ONENA, PROBA SEIGARREN POSTUAN AMAITUTA.


Mutrikun bizi den Iñigo Agirre eibartarrek (34. postuan, 1:08:22 denborarekin) eta Jonan Rodríguez Deporrek atleta federatuak (77. postuan, 1:11:15) bikain jardun zuten ere. Domeka goizean jokatutako Behobia-Donostia maratoi erdian gure herriko 91 gizonezko eta 11 emakume izan ziren parte hartzen. Irten-dako 19.877 atletetik, bakarrik 202 erretiratu ziren. Abraha Mi-



law etiopiarrek irabazi zuen proba eta, emakumezkoetan, Tirhas Gebrek (argazkian) marka berria ezarri zuen. Honakoa dira eibartarren postuak eta denborak, helmugara sartu ziren ordenari jarraituz.

6	Asier Cuevas	1:04:12	10.307	Aitor Zubizarreta	1:46:19
521	Eduardo Talán	1:18:50	10.437	Ibon Arizaga	1:46:35
928	Igor Errasti	1:22:00	10.440	Eduardo Kapelastegi	1:46:35
994	Josu Azkonaga	1:22:24	10.552	Iker Aristondo	1:46:51
1.134	Jon Ibarondo	1:23:10	10.774	Angel Leiaristi	1:47:18
1.233	Iñigo Trokaola	1:23:43	10.801	Ricardo Bastida	1:47:22
1.468	Juan Luis Azkonaga	1:24:51	11.056	Sergio Alegre	1:47:57
1.560	Eduardo Uribe	1:25:12	11.268	Eneko Urain	1:48:25
2.998	Liher Prieto	1:30:07	11.350	Luis De Blas	1:48:34
3.231	Xabier Etxaniz	1:30:50	11.463	Ibon Muñoz	1:48:50
3.545	Fermin Sebastián	1:31:41	11.605	Kristina López	1:49:09
3.549	Jon Mikel Mujika	1:31:42	11.905	Ainize Bolinaga	1:49:49
3.655	Iñaki Aldai	1:32:00	11.949	losu Alonso	1:49:56
3.783	Daniel Iglesias	1:32:23	12.001	Igor Guenaga	1:50:03
3.838	Mikel Beristain	1:32:30	12.361	Asier Lz. de Viñaspre	1:50:56
3.862	Igor Gómez	1:32:32	12.501	Juan Luis Iriondo	1:51:20
4.194	Ane Ziaran	1:33:23	12.546	Javier Unamuno	1:51:25
4.513	Adolfo Málaga	1:34:12	12.804	Ricardo Zabala	1:52:05
4.818	Miren Gallastegi	1:34:54	12.845	Naiara Cid	1:52:13
4.897	Jose Ignacio Telleria	1:35:03	13.360	Ana Iparragirre	1:53:26
5.475	Mikel Sologaistua	1:36:23	13.883	Aitor Muguruza	1:54:41
5.542	J. Antonio Cañaveras	1:36:31	13.889	Rafael Martínez	1:54:42
6.007	Leandro Luengo	1:37:28	13.922	Paul Unamuno	1:54:46
6.112	Ana Ramírez	1:37:42	13.947	Igor Madariaga	1:54:51
6.174	Xabier Arrieta	1:37:49	13.987	Gorka Apellaniz	1:54:57
6.227	Jesus A. Del Ejido	1:37:56	14.071	Iakobe Olaeta	1:55:09
6.316	Aitor Etxaniz	1:38:07	14.091	Gorka Vidal	1:55:12
6.540	Alberto S. de Biteri	1:38:34	14.096	Asier Cordón	1:55:13
6.542	Alexander Telleria	1:38:34	14.098	Josu Trebiño	1:55:13
6.704	Enrique Martín	1:38:55	14.101	Ander Trebiño	1:55:13
6.803	Andoni Izagirre	1:39:07	14.440	Eugenio Morillo	1:56:14
6.946	Aitor Zabala	1:39:25	14.695	Mikel Díaz	1:56:56
7.036	Javier Ziaran	1:39:36	14.698	Begoña Eizmendi	1:56:57
7.694	Tomas Axpe	1:41:01	14.701	Vicente Alija	1:56:57
7.751	Xabier Barrutia	1:41:08	14.832	Victor Calderón	1:57:19
7.886	Ignacio Arana	1:41:25	14.833	Ander Retana	1:57:19
7.887	Ernesto Etxabe	1:41:25	14.876	Gaizka Unamunzaga	1:57:26
7.893	Jon Etxabe	1:41:25	14.997	Eduardo Ribaguda	1:57:45
7.953	Eider Mujika	1:41:32	15.054	Unai Artetxe	1:57:56
8.443	Ion Zubiate	1:42:32	15.086	Ainhoa San Martin	1:58:02
8.687	Enrique Guruzeta	1:43:00	15.204	Javier Arriola	1:58:24
8.960	Asier Arana	1:43:36	15.305	Jorge Pérez	1:58:42
9.078	Aimar Arakistain	1:43:50	15.398	Juan Galarza	1:58:58
9.291	Gorka Gallastegi	1:44:16	15.433	Alexander Zubizarreta	1:59:07
9.295	Eneko Eizagirre	1:44:17	15.785	Carlos Balseiro	1:55:21
9.474	Josu Zinkunegi	1:44:36	16.018	Julen Goenaga	1:55:22
9.684	Josemi Da Silva	1:44:59	16.331	Ion Azpeitia	1:56:29
9.773	Aitor Zubizarreta	1:45:10	16.858	Jorge Sáenz	1:56:41
9.786	Mikel Artetxe	1:45:11	18.523	Luis Etxeberria	1:57:06
9.888	Borja Sánchez	1:45:24	18.729	Adrian Galán	1:57:49
9.994	Iban Tueros	1:45:36	18.912	Gaizka Aranzabal	1:57:56

Azaro Gastronomikoa antolatu du Arrate Kultur Elkarteak eta Ogi-ogia tailerra egingo da azaroaren 19an. Prozesu naturalez egindako ogia sortuko dute parte-hartzaileek, Juantxo Aranburu eta Teba Gonzalezen aginduetara. Izena emateko 943202299 telefonora deitu, [arratekultu@gmail.com](mailto:arratekultu@gmail.com)-era idatzi edo Kultuko bulegora jo dezakezue.



**JUANTXO ARANBURU, okina:**

## "20 urte daramatzat ogia okindegian erosi barik"

**- Zer da, zehazki, tailerrean egingo duzuen?**

Bakoitzak bere ogia egingo du bertan.

**- Nolako ezaugarriak izango ditu, baina, ogiak?**

Ez dauka erositako legamia; irina eta urarekin egiten dugu. Gero, norbaitek gatza bota nahi badio, aurrera. Etxean daukadan legamiak, adibidez, hiru urte ditu. Hori behin prestatzen da. Prozesu bat dauka eta zainketa behar du: kontserbatu behar duzu, elikatu... baina naturalki. Ez naiz beste ogiaren aurkakoa, baina okindegian ez dut ogia erosi orain dela 20 bat urte, beti Sosola baserrikoa erosi baitut. Gertatzen dena da orain dela hiru urte baserrikoek denbora batez, obrak zirela-eta, ezin zutela ogirik egin. Orduan neure buruari galdetu nion, "4-5 hilabete ogi hori erosi barik egon behar du? Ba ez, niretzat naturalagoa dena nahi dut".

**- Zein alde dago ogi mota bi horien artean?**


Ogi naturalak ez dauka ezer berezirik, gertatzen dena da ez dela berdina. Demaseko aldea dago. Osasungarriagoa ere dela diote, baina horretaz ez daukat idearik ere. Zapote aldetik pasada bat da eta gehiago irauten du.

**- Bakoitzak bere etxean egin ditzake ogi hori ala material berezia behar da?**

Etxean egiten dut. 20 bat urteko labe adut, edozein etxetako antzekoa. Irina eta ura erabiltzen ditut, bol bat dena nahasteko eta lehen fermentazioa egiteko, eta bigarrena balde batean egiten dut. Orea hartu eta labean sartzen duzu. Prozesua luzea da, baina zenbat eta luzeagoa izan, ogia hobeto izango da. Ulertzen dut okindegiek egiten dutena, negozio bat delako eta etekinak atera behar dituztelako. Beraz, ez da gauza bera asteen 3-4 ogi egitea edo gau batean 200-400 kg. Soldatak ordaindu behar dituzte eta abar, ulertzen dut, baina niri ez zait gustatzen, beste gauza baten bila noa. Ez dut aurkitzen nik nahi dudana, beraz nik egiten dut ogia. Gaur egin dezaket integrala, bihar zuria, edo alemaniarra, suediarra... dena-delakoa. Teba eta biok horretan dihardugu. Bera dietista-nutrizionista da, Barakaldoko ikerketa taldean dago eta berak erantzuten ditu galdera teknikoak.


**- Usain gozoa egongo da ba zure etxean.**

Pegoran esaten didate: "hemen, nonbaiten, ogia egiten dutela uste dut" (barreak).




## 57 parte-hartzaile XXXIV. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketan

**DOMEKAN JOKATU ZEN GUREAN XXXIV. AIRE ZABALEKO PINTURA LEHIAKETA** eta, nagusien atalean, iabazleak Zeberio-ko Iker Mugarra San Martin, Gasteizko Koldo Gojenola, Plentziako Letizia Gaspa, Bilboko Alvaro Gil Soldevilla eta Kantabriako Pedro Barrio Arceniaga izan ziren. Umeen artean, 15 urtera artekoen mailan, Jon Bengoa Urizar izan zen irabazlea eta 12 urtera artekoen mailan lehenengo postu bietan sailkatutakoak Jone López Zurutuza eta Ane Xixi López izan ziren.



## Gascón Coliseoan diskoa aurkeztzen

**GAUR ILUNTZEAN, 20.30-ETAN DANI GASCÓN MUSIKARI EIBARTARRAK COLISEO ANTZOKIAN** kontzertua eskainiko du, "Dentro de mí" diskoa aurkezteko egiten diharduen biraren barruan antolatutako emanaldian eta berari laguntzen dion bandarekin batera. Oso gaztetatik musikarekiko zaletasuna duen eibartarrak 2005ean "Imaginame" izenburuko maketa grabatu zuen eta gaur emango duen kontzertuan estudioko bere lehenengo lana dena emango du ezagutzera. Sarrerak 5 eurotan egongo dira salgai, emanaldia baino ordubete lehenago Coliseoan bertan.



## Serenata eta kontzertuak Santa Zezilia ospatzeko

**CIELITO MUSIKA BANDAK ETA USARTZA TXISTULARI TALDEAK ASTEBURUAN EMANALDI BEREZIEKIN** ospatuko dute azaroaren 22an gogoratzen den Santa Zezilia, musikarien babeslearen eguna, emanaldiak asteburura aurreratuta. Usartza Txistulari Bandak zapatu goizean, 11.00etan kalejira eginda ospatuko du eta Cielito Musika Bandak gidatzen duen Santa Zezilia Serenata, berriz, ohikoari jarraituta zapatu gauerdian abiatuko da herriko kaleetan kalejiran.

## Bertso-paper lehiaketako irabazleak aukeratu dituzte

LAN UGARI JASO DITU AURTEN ERE ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK ANTO-LATUTAKO SAN ANDRES BERTSO PAPER LEHIAKETAK. Txikienen mailan, Lehen Hezkuntzan, 140 lanen bueltan aurkeztu dituzte herriko ikastetxeek eta lehen saria, Arrateko Andra Mariko Aurelis Dalila Martinez-ek irabazi du. Bigarren saria, berriz, Juan Antonio Mogel ikastolako Irati Etxeberriak eraman du. Nagusien mailan hamar lan jaso dira aurten, eta bi sariak Eibar-



Datorren barixakuko bertso-jaialdian banatuko dira lehiaketako sariak. / MAIALEN BELAUSTEGI

tik kanpora joan dira: irabazlea Abadiñoko Eñaut Uruburu izan da eta bigarrena, berriz, Oretako Aitor Albistur (iazko irabazlea). Irabazleek azaroaren 25ean Portaleko areto nagusian gaueko 22.00-etatik aurrera egingo den San Andres bertso jaialdian jasoko dute

saria. Jaialdi horretan Manu Goiogana, Nerea Elustondo, Xabi Astigarraga, Odei Barroso, Ainhoa Mujika eta Ainhoa Agirreazaldegia bertsolariekin osatutako seikoteak jardungo du. Sarrerak salgai daude 5 eurotan Depor, Kultu eta Sagar Bitza tabernetan.



LAMBRETTA KLUBEKOEN ESKUTIK ROSENDO MERCADOK ZAPATU GAUEAN KONTZERTUA emango du Astelehena frontoian, 23.00etan. Aurkezpen laburra behar duen Carabanchel-en hazi eta bizi den artistak ibilbide luzea daroma musika munduan eta hainbat taldetan jardundakoa da, besteak beste desagertutako Ñu eta Leño-n. Bere diskografia osatzen duten lanen zerrenda luzean azkena "A veces cuesta llegar al estribillo" da, Landetan 2010eko martxoan grabatutako diskoa. Kontzerturako sarrerak interneten [www.jaiproductions.net](http://www.jaiproductions.net) helbidean daude salgai (20 eurotan) eta Astelena frontoiko lehiatilan ere salgai ipiniko dituzte (25 eurotan).

## Ruben Cortijo argazki-lehiaketa berria

LAUREL&HARDY TABERNAK, KRABELIN HOTELAREKIN ELKARLANEAN, RUBEN CORTIJO I. MEMORIALA argazki lehiaketa antolatu dute, 2002an Euskal Herria Lau Haizetara saiorako irudiak grabatzen Iñaki Pangua eta Roberto Arenasekin batera helikoptero istripuan hil zen kamara eibartarra gogoan. Lehiaketan argazki zaletu zein profesionalak har dezakete parte, gehienez 3 argazki aurkeztuta. Argazkietarako gaia, berriz, hilaren amaieran guzerean ospatuko dugun San Andres azoka izango da (bertan egongo diren produktuak edo nekazal munduarekin lotutakoak). Lehiaketarako argazkiak abenduaren 11ra arte jasoko dituzte, Laurel&Hardy tabernan (eguerdiko 12.00etatik aurrera). Irabazleen izenak, berriz, abenduaren 17an emango dituzte ezagutzera han bertan eta sariak Arrateko Krabelin hotelean lagun birendako afaria, lo egitea eta armozua (lehenengoarentzat) eta asteburu batean Krabelinen lagun birendako afaria (bigarrenarentzat) izango dira.

## laburrak

### HARRY BIRD TAS-TASEN

Gaur gauean, 23.00etan Eskoziako folk musika eskaintzen duen Harry Bird zuzenean entzuteko aukera izango da. Bere disketeak ekoiztu duen lehenengo diskoa, "Long way to be free" (askatasunerako bide luzea) aurkezteko emanaldi akustikoa izango da.

### MUSIKA KARRIKAN

Gaur gauerdian Bengolden-en eskutik Hardcore Gaua ospatuko dute Karrika tabernan eta bihar, berriz, DJ Balza eta DJ Dubby-k "Kogollo Party Krew" izenburuari jarraituta saioa eskainiko dute.

### DEBAGOIENEN OSTERA

Topagunearen eskutik martxan dagoen Debagoieneko Osteraren barruan, azaroaren 25ean "Hostoak" musika ikuskizuna hartuko du Ermua antzokiak, 22.15etan hasita (12 euro) eta hilaren 26an, berriz, Etxe eta Lorelei elkarrekin ikusteko aukera izango da, 22.00etan, Getxoko Andres Isasi Musika Eskolan.

### DESFILEA

El Corte Inglés-ak moda desfilea antolatu du gaur arratsalderako, 19.00etarako. Aurreko astean eta atzo bertan egindakoaren bidetik, Joven Ella udazken-negurako eskaintza berria ezagutzera emango dute.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

## NTRA. SRA. DE BEGOÑA

### EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:  
Txalixa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:  
☎ 943 201095 fax: 943 202564

## EMAKUME ETA GIZON MODA

# Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7




## Juan Antonio Palacios: saritik sarira

**JUAN ANTONIO PALACIOS ARGAZKILARIAK GIPUZKOA XXXIX. NAZIOARTEKO TROFEOAN** Marqués de Rocaverde Euskal Trofeoa eskuratu du "Semana Santa I" argazkiarekin eta, horrez gain, FIAP Nazioarteko Argazkilari-tza Federakuntzaren Ohorezko Aipamena ere egin dio epaimahaiak, aurretik ere hamaika sari eskuratu dituen Klub Deportiboko argazkilariari. Autodidakta den argazkilariak Bercianos de Aliste, Zamorako herri txiki batean Aste Santuan egiten dituzten prozesioetan hartutako argazkiekin egindako konposizioari esker eskuratu du saria. Tradizioari ondo errotuta eutsi dion herriak urtero turista mordoak erakartzen ditu bertara, harrizko etxe, zubi eta putzuen inguruan egiten dituen prozesioak direla eta. Barixaku Santuan egiten den Entierro Santuko prozesioan herriko gizonez-

ko guztiek hartzen dute parte: ezkontuta daudenak kofrade gisara irtetzen dira, hiltzean hiltzantzia izango dituzten tunika eta txano zuriekin; alargundutako gizonak eta zaharrak, orhar, ahuntz-larruko kapa gris edo beltza janzten dute. Euretako batzuk ortozik eta kateak arrastaka eramaten dituzte ibilbidean. Horrek guztiak eta argazkilariak zuri-beltza erabilizteak saria erman duen argazkiari aintzinkotasun irudia ematen laguntzen dioten elementuak izan dira, duda barik.

Aurreko barixakuan jaso



## Kaba dastatzea Kultun

**ARRATE KULTUR ELKARTEAK AZAROAN GASTRONOMIA ARDATZ DUEN EGITARRAUA ANTOLATU DU**, besteak beste ogiaren inguruko tailerra eta hitzaldia antolatuta. Horrez gain, azken urteotan egindakoari jarraituta, San Andres jaien inguruan pintxo lehiaketa antolatu du herriko tabernarientzat. Lehiaketarako izena eman duten tabernak Oishi, Suberoa, Ambigú, Chal-

cha, Bossa, Batzokia, Koskor, Txoko, Maixa, Birjiñape, Ceba, Iruki, Kultu, Agiñaspi, Aterpe, Iturri, Trinkete, Depor, Zubi Gain, Paulaner, Foxtter, La Terraza eta Anardi dira eta epaimahaiko kideak gaur, bihar eta etzi joango dira bakoitzean prestatutako pintxo bereziak probatzera, denen artean onena aukeratzeko. Eta, horrez gain, datorren eguaztenean, 19.30etan kaba-dastaketa egingo da, Alfredo Bernáldez Malformosako enologoarekin. Zazpi kaba moeta probatzeko aukera izango dute parte-hartzerantz animatzen direnak: erdilehorra, brut, rosse, brut-nature, brut nature erretserba eta Gala Gran Reserva. Dastatzea 50-60 lagunendako prestatuko dute eta joan nahi duenak gonbidapena eskatu beharko du Batzokian, Ongi Etorrin, Koskor tabernan edo Kultun, aste-buru honetan hasita.



Alfredo Bernáldez enologoa.



zuen saria Donostian eta sari-banaketa ekitaldia amaitu eta jarraian koloretako modalitatean aurkeztutako lan irabazleen eta saritutako beste batzuen erakusketa zabaldu zuten Gipuzkoako Argazkilarien Elkartean bertan (Donostiako San Juan kaleko 27an). Datorren urteko urtarrilaren 26ra arte egongo dira ikusgai lanak, as-

telehenetik barixakura 17.00etatik 19.00etara eta zapatu arratsaldetan, 17.00etatik 20.00etara. Hori amaituta eta otsailaren 9ra arte, paper monokromoan aurkeztutako erakusketa zabalduko dute. Horrez gain, argazkiak elkartearen webgunean, [www.sfg-ss.com](http://www.sfg-ss.com) helbidean ikusteko moduan daude.

## Sostoa zarzuelari keinuka

**AZAROAREN 30-ERA KO KONTZERTU BEREZIA ANTOLATU DU SOSTOA ABESBATZAK**, "Zarzuelari Keinua" izenburuari jarraituta. Abesbatzatik aditzera eman digutenez, *"musika munduan generoak duen garrantzia ikusita, omenaldi gisara kontzertu osoa eskainiko diogu zarzuelari eta, orkestarik ez daukagunez, pianoan Isabel Laspiur eta Mari Karmen Etxeberriak lagunduko digute"*.

Coliseoan, 19.30etan izango den kontzertuak ordubete eta 45 minutuko iraupena izango du, zati bitan banatuko dute eta 21 pieza eskainiko dituzte. Sarrerak euro bitan eros daitezke Coliseoko leihatilan bertan.




## Laburmetraia onenei saria bihar


**PLANO CORTO ELKARTEAK ANTOLATUTAKO ASIER ERRASTI 12. LABURMETRAIA JAIALDIKO JAVIER AGIRRESAROBESARIEN IRABAZLEAK** zeintzuk izan diren bihar esango dute, 19.30etan Portaleako areto nagusian hasiko den ekitaldian eta ekitaldian bertan banatuko dizkiete bakoitzari dagozkion sariak. Astelehenaz geroztik lehiaketan finalista geratu diren zein aukeraturako beste laburmetraia batzuk proiektatzen dihardute, Coliseoan, eta gaur ere hala egingo dute, 20.00etan hasi eta 21.30ak bitartean. Gaurko saioan "Scheibe!!!", "Eta Amama", "Inmovil", "Estereoscopia", "La casa del lago", "Cuki colorinchi", "Sabrina", "Cloe", "Nadie tiene la culpa" eta "Maradona" ikusteko aukera izango da.

# laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, BERNART, martitzenian bost urte beteko dozulako. Muxu asko, famelixa guztiaren partez.




Zorionak, LUAR, pirata, zure hirugarren urtebetetzian. Aitxitxen eta amamen partez, lau patxo potolo zuretako!




Zorionak, ANGELA, gaur hiru urte egitten dozuz-eta. Muxu haundi bat aitta, ama eta, batez be, zure anaixa Anderren partez.




Zorionak, NAGORE Arakistain Mendizabal, haraiegun bost urte bete zenduaz-eta. Famelixa osuaren partez.




Zorionak, NORA, domekan urtebete egingo dozulako. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partetik.




Zorionak, ANNEKE, hillaren 10ian lau urte haundi egin zenduaz-eta. Aitatxo eta amatxoren partez.




Zorionak, HAREA eta BEÑAT, zortzi eta bost urte bete dozuzelako. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MADDI eta IRATI!!! Bederatzi eta zazpi urte bete dozuez honezker... Segi hain jator eta zoriontsu, neskak! Patxo mordua bixontzat!



Zorionak, NEREA, astelehenian bederatzi urte beteko dozuz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, MIREN, astelehenian hamabi urte beteko dozuz-eta. Ondo pasa eta muxu haundi bat famelixaren partez.

## HILDAKOAK

- Justina Rico López. 67 urte. 2011-XI-9.
- Juana Fernández Hernández. 82 urte. 2011-XI-11.
- Virginia González Fernández. 82 urte. 2011-XI-11.
- Pedro Morán Morán. 73 urte. 2011-XI-12.
- Jose Ramon Txintxurreta Arriola. 88 urte. 2011-XI-12.
- Jesus Rodríguez Aldai. 89 urte. 2011-XI-12.
- M<sup>o</sup> Carmen Arrieta Etxeberria. 57 urte. 2011-XI-12.
- Jesus Rodríguez Aldai. 89 urte. 2011-XI-12.
- Sabina Morales De Marcos. 87 urte. 2011-XI-13.
- M<sup>o</sup> Cruz Briongos Sendino. 89 urte. 2011-XI-13.
- Martina Eizagaetxerberria Basterretxea. 86 urte. 2011-XI-15.
- Lorenzo Cámara Angulo. 87 urte. 2011-XI-16.

## JAIOAKOAK

- Olatz Albizu Tubía. 2011-XI-3.
- Paul Iriondo Albizu. 2011-XI-3.
- Hiart Isasmendi Jauregi. 2011-XI-4.

SUDOKUA

				6			4
	9	3	2				7
	5						
			9	8			3
3	1					6	9
8			3	7			
						4	
1				8	2	5	
6		1					

## DENBORAPASAK

5	8	7	6	3	2	4	0	1
9	2	8	4	7	1	0	8	5
3	4	1	5	6	0	8	2	7
4	3	2	0	0	7	6	1	0
6	5	9	3	1	4	2	7	8
1	7	8	2	8	6	0	3	4
2	9	4	7	5	8	1	6	3
7	1	0	9	4	6	8	0	2
8	6	0	1	2	0	7	4	0

AURREKOAREN EMAITZA

## horoskopoa

**ARIES**

Konturatu barik ustelduta dagoen zeozer jan eta kalte egingo dizu. Hurrengoan jakiak usaindu itzazu ahora eraman aurretik.

**TAURUS**

Paperean, batetik, funtsezkoak diren gauzak eta, bestetik, gehiegi behar ez dituzunak ipini behar dituzu albo bakoitzean. Galbahetik pasatu!

**GEMINI**

Arazoak konpontzeko abilezia aparta izaten duzu gehienetan, baina datorren astean esku artean izango duzunarekin larri ibiliko zara.

**CANCER**

Ez legoke txarto egunen batean zapatilak jantzi eta gutxienez paseotxo bat emango bazenu. Aire freskoa behar dute zure birikek.

**LEO**

Azken orduan bazabiltza, zaila egingo zaizu gauzak ondo egitea. Ea ikasten duzun gauzak denborarekin egiten, emaitza hobeak izango direlako.

**VIRGO**

Zein mundutan daukazu burua? Beste galaxia batean dagoela ematen du! Hartu lurra behingoz eta dituzun eginbeharrak gauzatu.

**LIBRA**

Ezer ez baduzu esaten, besteek ez dute jakingo zer den zuk nahi duzuna. Zergatik ez duzu pentsatzen duzuna azaleratzen?

**SCORPIUS**

Ohitura txarrak hartzen zabilta eta hobe duzu berandu baino lehen horiek zuzentzea. Zeuk ere badakizu oker zabiltzala.

**SAGITTARIUS**

Deituiozu nahi duzun moduan, baina maiteminduta zaude. Onartu ezazu, beragatik sentitzen duzuna maitasuna baino gehiago da.

**CAPRICORNIUS**

Agur esatea ez da erreza, baina heldu da momentua. Trankil, agurra baino 'gero artea' izango da. Ez da denbora asko pasako berriz elkar ikusi arte.

**AQUARIUS**

Poz-pozik ibiliko zara datorren astean. Hainbeste denboran zain zeuden momentua iritsi da eta ederki aprobetxatzen saiatuko zara.

**PISCIS**

Mukiak, eztula, buruko mina... ohean egun batzuk pasatzea tokatuko zaizu. Hori bai, ez zaitez pasa mimoak eskatzen.

## Barixakua 18

**DESFILEA**

**17.30.-** Moda desfilea: Corral (gizonezkoak) eta El Corte Inglés-a (emakumeak). Untzagako jubilatutuek.

**IKASTAROA**

**17.30.-** 2011ko boluntarioak eta irabazi asmorik gabeko elkarteetako kideentzako ikastaroa: "Komunikazioa elkarteetan. Ba al dakigu komunikatzen?". Portalean.

**SANANDRESAK PRESTATZEN**

**18.00.-** Sanandres jaiak prestatzeko bilera irekia, Jaixak herrixak Herrixandako elkarteak deituta. Gaztetxean (Iparragirre kalean).

**LABURMETRAIAK**

**20.00.-** Asier Errasti laburmetraia jaialdira aurkeztutako lanen proiektzioa. Sarrera doan. Coliseoan.

**KONTZERTUA**

**20.30.-** Dani Gascón-en "Dentro de mi" disko aurkezteko kontzertua. Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

**KONTZERTUA**

**23.00.-** Harry Bird-en kontzertu akustikoa (Eskoziako folka). Tas Tas kafe antzokian.

**KONTZERTUA**

**00.00.-** Hard Core Gaua. Bengolden-en eskutik. Karrikan.

## Zapatua 19

**IKASTAROA**

**09.30/13.30.-** "Ogi-ogia" tailerra. Juntxo Aranburu eta Teba González-en eskutik. Arrate Kultur Elkartearen.

**I. EL CORTE INGLES RALLYSPRINT**

**09.30.-** Berifikazioak. Untzagan. **13.00.-** I. Rallysprint auto lasterketa.

**SANTA ZEZILIA**

**11.00.-** Usartza Txistulari Bandaren Santa Zezilia kalejira.

**1951-N JAIOTAKOEN BAZKARIA**

**13.00.-** 1951n jaiotako en bazkarira doazenak Untzagan batuko dira, argazkia ateratzeko.

**13.30.-** Piskolabisa, O'Jays Irish Tavern-en (Kaiku-ohian).

**14.30.-** Bazkaria, Iruki sagardotegian.

**LABURMETRAIAK**

**19.30.-** Asier Errasti laburmetraia jaialdira aurkeztutako lanen irabazleei saria banatzea. Portalean (areto nagusian).

**KONTZERTUA**

**23.00.-** Rosendo-ren kontzertua. Sarrerak: 20 euro alde aurretik, 25 euro leihatilan. Astelena frontoian.

**SANTA ZEZILIA**

**00.00.-** Cielito Musika Bandaren Santa Zezilia kalejira.

**KONTZERTUA**

**00.00.-** Kogollo party krew. dj Balza eta dj Dubby. Karrikan.

## Domeka 20

**IBAI LAGUN**

**10.00.-** Eibarren erreka garbitzeko saioa. Azitainen elkartuko dira boluntarioak, azalpenak jasotzeko.

**12.45.-** Garbiketa lanak amaitzea eta pilotutako zaborra furgonetara sartzea.

**13.15.-** Zabor guztia Untzagan pilotuko dute, herritarrek sentsibilizatzeko asmoz.

**13.30.-** Mokadutxo parte-hartzaileentzat.

**16.00.-** Mankomunitateko beharginek Untzogatik zaborra erretiratzea.

## Martitzena 22

**IKASTEN**

**10.00.-** "Envejecimiento y bienestar. Un nuevo modelo de vivir la dependencia" hitzaldia, Adindu-ren eskutik. Armeria Eskolan.

## Eguaztena 23

**IKASTEN**

**10.13.-** "Mendi ibilaldia: Neberondo-Durango (Mugarratik). Durangorako trenaren irteera Estaziñotik (10.15etan Ardantzatik).

**KABA-DASTATZEA**

**19.30.-** Zazpi motako kaba-dastatzea, Alfredo Bernáldez enologoarekin. 50/60 lagunendako gonbidapen. Kulturean.

## Eguena 24

**IKASTEN**

**10.00.-** "Cómo mantenerse en buenas condiciones físicas" hitzaldia, Pili Arín-en eskutik. Armeria Eskolan.

**EGOIBAR ZINEKLUBA**

**17.30 eta 21.00.-** "Cirkus Columbia" (Zuz: Danis Tanovic). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

**ODOL ATERATZEA**

**18.00.-** Odol ateratzea, odol-emaileentzat. Gipuzkoako Odol Emaileen elkartearen (Pagaegi, 3).

**IKASTAROA**

**18.30.-** "Modaren sekretuak: tendentziak eta aholkuak", Ana Goitiarekin. ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuarekin).

**KALETAN KANTUZ**

**19.30.-** Kaleetan Kantuz-erako entsegua. S. Andres elizako lokalean.


**HITZALDI-DASTAKETA**

**20.00.-** "Ogi-ogia" hitzaldi-dastaketa. Juntxo Aranburu eta Teba González-en eskutik, Oskar Trebiñoren laguntzarekin. Arrate Kultur Elkartearen.

**SANANDRESAK GASTEIZEN**

**20.00.-** Gasteizen bizi diren eibarren XIII. Sanandres ospakizuna. Txikiteoa Dólar kafetegian (Florida, 26) hasi eta Toloñon itxiko dute.





## erakusketak

– Azaroaren 18ra arte

**JOSE LUIS IRIGOIEN**en "Jordania" argazki erakusketa. *Doherty's tabernan (San Prudentzio, 6an, Matienan).*

– Azaroaren 19ra arte

**ESTHER FERNANDEZ DE MARURI** margolariaren koadro erakusketa. *Untzagako Jubilatut Etxean.*

– Azaroaren 20ra arte

**ARRATE ETXEBERRIA**ren margo erakusketa. *Topalekuan.*

**INDALECIO OJANGUREN XXIV. ARGAZKI LEHIAKETA**-n saritutako eta aukeratutako beste lan batzuen argazki erakusketa. *Portalean.*

**"EGIPTO. BEGIRADA ERROMANTIKOA"**, besteak beste Santi Entrena eibartarraren bildumako piezen erakusketa. Sarrera doan. *Irungo Oiasso Museoa (Irun).*

– Azaroaren 23ra arte

**"MEDUELELAVIDA" RUBEN**en erakusketa berezia. *Karrika tabernan.*

– Azaroaren 30era arte

**DAVID RODRIGUEZ**en "El clamor del bosque" argazki erakusketa. *El Ambigú kafetegian.*

**PATXI JATO**ren argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

**"JUAN LUIS ULAZIA OROITUZ"** argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*

**MUNDUKO PAISIAK**, Txinari eskaintako erakusketa. *Juan San Martin Liburutegian.*

**FERRARI TESTAROSSA** automobila ikusgai. *El Corte Inglés-ean (beheko solairuko sarreran, gizonetako departamentuaren aldamenean).*

## ikastaroak

– **Ogi-ogia tailerra (prozesu naturala, legamia barikua).**

Non eta noiz: Azaroaren 19an, zapatua, 09.30/13.30, Arrate Kultur Elkartearen. Izen-ematea: 943-202299, arratekultu@gmail.com edo Arrate Kultur Elkartearen bulegoan, martitzen eta eguenean, 17.00/20.00. 30 euro bazkideek, 32 euro gainontzekoek.

## farmaziak

**18, barixakua**

EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)  
GAUEZ Zulueta (S. Agustin, 5)

**19, zapatua**

EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)  
GAUEZ Mandiola (S. Agustin, 3)

**20, domeka**

EGUNEZ Urizar (J. Etxeberria, 7)  
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)

**21, astelehena**

EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)

**22, martitzena**

EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)

**23, eguaztena**

EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)  
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)

**24, eguena**

EGUNEZ Las Heras (Sostotarren, 10)  
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

**25, barixakua**

EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

## lehiaketak

– **Gasztelekurako Logotipo Lehiaketa.**

Norentzat: 12-17 urte bitartekoentzat.  
Bete-beharrekoak: Indianokua gaszteleku agertzea. Lanak entregatu / informazioa: Azaroaren 20a baino lehen, Indianokua gaszteleku (Muzategi, 3).

– **XIX. Bakailao Txapelketa "San Andres Saria".**

Noiz eta non: Azaroak 27, 11.30etan  
Untzagan. Izen-ematea eta informazioa: Azaroaren 14ra arte (14.00etan itxiko da epea), Pegoran.

– **Ruben Cortijo Memoriala I. Argazki Lehiaketa.**

Gaia: San Andres Azoka.  
Lanak entregatzea: Laurel&Hardy Pub (Untzaga, 11). Abenduaren 11ra arte.

## telefono jakingarriak

SOS deiak .....112  
Pegora .....010  
Udaletxea .....943 70 84 00  
Portalea .....943 70 84 39  
Udaltzaingoa.....943 20 15 25  
Mankomunitatea943 70 07 99  
Debegesa.....943 82 01 10  
KIUB .....943 20 38 43  
Epaitegia .....943 03 34 00  
Iberdrola .....901 20 20 20  
Naturgas .....902 12 34 56  
DYA Larrialdiak.943 46 46 22  
Gurutze Gorria..943 22 22 22  
Mendaro osp.....943 03 28 00  
Anbulategia.....943 03 25 00  
Torrekua .....943 03 26 50  
Errepideak.....902 11 20 88  
Ertzaintza .....943 53 17 00  
Eusko Tren .....902 54 32 10  
Pesa .....902 10 12 10  
Taxiak.....943 20 30 71  
.....943 20 13 25  
Alkohol.Anon. ..629 14 18 74  
Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisia salgai Deban, Osio kalean. 3 logela, jangela-egongela, sukaldea eta komuna. Igogailuarekin. Berriztuta. 205.000 euro. Tel. 645-186309.
- Soraluzen bost urte dituen apartamentua salgai. Logela bat, jangela, sukaldea eta komuna. Igogailua. 145.000 euro, negoziagarriak. Tel. 687-537575.
- Jardiñeta kalean pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kalefakzio zentrala. Eguzkitsua eta bizitzera sartzeko moduan. Etxe osoan musika entzuteko aukera. Internet banda zabala. Tel. 688-873807.
- Untzaga inguruan pisua salgai. Logela bi, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Terraza txiki bi. Oso eguzkitsua. Igogailua. Tel. 615-744460.

### 1.2. Errentan

- Familia batek bi edo hiru logelako pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 673-025316.
- Asola-igartzan babes ofizialeko atikoa alokagai denboraldi batean kanpoan lan egin behar dudalako. Inklinoaren soldataren arabera prezioa (186-426 euro artean). Garajearekin. Berria, estrenatzeko. Tel. 617-926344.
- Pisia hartuko nuke alokairuan konpartitzeko. Tel. 688-819475.
- Familiak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 669-966611.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

- Asua-Errekan garaje itxia alokagai. Tel. 678-426136.
- Urkizu inguruan garaje marraduna alokagai. Tel. 609-453946.
- Bi garaje alokagai Abontzan. Bata marraduna eta bestea itxia (handia). Tel. 617-688311.
- Lokala edo garajea behar dut altzariak gordetzeko. 70 euro ordaintzeko prest hileru. Tel. 678-641500.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da etxeak garbitzeko. Tel. 673-025316.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 676-858210.
- Emakumea eskaintzen da kamarera jarduteko eta nagusiak edo haurrak zaintzeko. Tel. 652-532589.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-912841.
- Emakumea eskaintzen da orduka garbiketara lanak egiteko. Tel. 638-527489.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 638-153016.
- Mutila eskaintzen da kamarero eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Esperientzia. Tel. 943-257815 eta 692-332871.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 943-257815.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo haurrak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 609-148861 eta 943-257815.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-180132.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernak eta soziedadek garbitzeko. Tel. 689-974001.
- Nagusiak zaindu eta garbiketara lanak egingo nituzke. Tel. 699-232823.
- Mutil gaztea eskaintzen da kamarero jarduteko, pintore moduan eta nagusiak zaintzeko. Erabateko disponibilitatea. Tel. 615-720384 eta 943-257815.
- Neska eskaintzen da etxeak garbitzeko eta haurrak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 669-068439.
- Emakumea eskaintzen da haurrak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Externa edo orduka. Tel. 623-150376.
- Neska eskaintzen da haurrak zaintzeko eta klase partikularak emateko. Tel. 660-353703.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.
- Neska eskaintzen da kamarera jarduteko, sukaldari-laguntzaile moduan, garbiketarako egiteko eta nagusiak edo haurrak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 608-376387.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta haurrak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 608-474923.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko, asteburuetan barne. Tel. 618-052967.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 657-396018.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 672-572526.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez garbiketarako egiteko, haurrak edo nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Esperientzia. Baita asteburuetan ere. Tel. 616-397348.
- Neska eibartarra eskaintzen da kamarera jarduteko. Esperientzia taberna eta jatetxeetan. Tel. 627-281938.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta kamarera jarduteko. Tel. 616-826542.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 669-311385 eta 636-362251.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 676-942532.
- Mutila eskaintzen da igeltsero moduan eta garbiketara lanetan jarduteko. Tel. 689-286167.
- Emakumea eskaintzen da orduka etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 690-925929.
- Emakume erizaintza-laguntzaile eta ilepintzaile tituluduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 695-898349.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 682-533597.
- Gizona eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 657-395980.
- Neska eskaintzen da gauean nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 651-836353.
- Gizona eskaintzen da kamarero jarduteko. Tel. 943-531048.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 681-322442.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko. Esperientzia. Tel. 608-293711 eta 943-744492.
- Gizona eskaintzen da kamarero jarduteko. Esperientzia. Goizez deitu. Tel. 943-208529 eta 606-110693.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Tel. 665-301550.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 689-847947.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarero jarduteko, zain-tzaile moduan, pintore lanak egiteko etabar. Tel. 615-720384.
- Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko, haurrak edo nagusiak zaintzeko, sukaldean laguntzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 609-148861.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta haurrak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 608-474923.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, pintore moduan edo igeltsero lanetarako. Tel. 692-332871.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 650-386345.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko jornada erdiz. Tel. 680-973549.

### 4.2. Langile bila

- Kamarera behar da asteburuetarako. Tel. 659-539861.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Euskerazko klaseak ematen dira: azterketetarako prestaketa, filifik, EGA, HABEren mailak. Tel. 620-608065.
- Batxilergorainoko Matematika klase partikularrik emango nituzke. Tel. 695-718855.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Haurrentzako Loola Up aukia salgai. Maxi-cosierentzako egokitzailearekin. Urtebetekoa, gehigarriekin. 100 euro. Deitu arratsalde. Tel. 635-740726.
- 27 pulgadako Philips telebista salgai, orma-euskarria eta TDT barne. 120 euro. Tel. 943-120308.
- 7-8 urteko neskaendako eskiko arropa eta berokiak salgai. Egoera onean. Tel. 617-171510.
- Binilozko diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 943-572057.
- Gurgildun aukia salgai, etxean erabiltzeko (estua). Gehigarriekin. Prezio onean. Tel. 943-120308.

### 6.2. Eman

- Aulki tolesgarria oparitzen da. Tel. 635-740726.

### 6.4. Bestelakoak

- Gaztetxeko sukaldariko materiala behar da. Altzariak ere bai. Tel. 635-191352.

Girorik onenean

Calbeton, 6

AZAROAK

25<sup>ean</sup>

BOZKATU  
GALA  
ETA OPARIAK

10.  
ESKERRIK ASKO  
urteurrena



BOZKATU



amaiur



Eibarren ere

VOTA



**IRAZABAL**  
clínica dental

**Antonio Murillo doktorea**

PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA

**Ainhoa Zulueta doktorea**

ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA

**Susana Sierra doktorea**

ORTODONTZIA, OKLUSIOA

**ORDUTEGIA:**

Astelehenetik ostegunera: 10-14 / 16-20h

Ostiraletan: 10-14 / 15-19h

**IRAZABAL HORTZ-KLINIKA**

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 35 52

[www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com) - [info@clinicairazabal.com](mailto:info@clinicairazabal.com)

